

ERBESTEA, ERBESTEAK

Aldaketa 16 aldizkarian argitaratuta, 210.zk., 2007ko azaroaren 5an

José Ramón Zabala
Hamaika Bide Elkartea

Gezurra badirudi ere, poliki poliki, marea geldiezin baten moduan “oroimen historikoaren” eufemismoaz adierazi den gure historia hurbilaren alde ezkutuenak berreskuratzeko beharra zabaldu da. Ekimen askotariko bidez, diru eta koordinazio eskasarekin, sarritan borondate handiaz, argitzen ari dira zazpi giltzapean batzuk gorde nahi izan zituzten izen debekatuak, tortura eta heriotza lazgarriak, isiltasunean buruturiko mota guztietako lanak eta ekintzak... Bide bazterretatik edo zulo sakonetatik argira ateratzen ari diren hezur zaharrak mugimendu zabal baten ikurra besterik ez dira. Frankistek hildakoak eta fusilatuak ezkutuan lurperatu zituzten moduan, ideiekin, liburuekin, Inperiokoa ez ziren hizkuntzekin gauza bera saiatu ziren egiten. Bada garaia, -aspaldian zen garaia- argi eta garbi hori guztia salatzeke.

Urrats ugari ematen ari dira eta horietako batzuk egunotan egin ditugu, alegia. Ostirala 19an burutu zen, esaterako, hiru egunetan “Erbestea: historia eta kulturarako debatea” izenburupean garatu den nazioarteko batzarra. Bertan Genoako (Italia), Birmingham-go (Britania Handia), Bartzelonako Autonomakoa, Deustuko Unibertsitateetako lan taldeak eta Hamaika Bide Elkartea bildu gara gure ustez premia handia duen eztabaida argitzeko asmoz, terminologiarena hain zuzen. Eta eztabaida argigarria izan da benetan. Ohikoak diren kontzeptuak saiatu da zehazten. Erabaki guztien artean ziur aski azpimagarriena azken urtetan oso ezaguna egin den “barne erbestea” kontzeptua baztertzeko aho batez hartutako proposamena izan daiteke. Baina zertan datza “barne erbeste” hori?

Gerra bukatu ondoren milaka izan ziren mugetatik haratago joan behar izan zuten errepublikanoek. Haiei ezartzen zaie “erbesteratuen” kontzeptua, zalantzarik gabe. Baina beste milaka pertsona estatu frankistaren barruan gelditu behar izan ziren; edota, Europa osoko egoera ikusita, bertara itzuli behar izan zuten. Izan ere, mehatxuak eta beldurra gaintuz, asko eta asko izan ziren erregimenaren aurkako jarrera edo haien ideien aldeko lana mantendu zutenak, klandestinitatean edo etxeko intimitatean, euskara irakasten edo idazten, kanta debekatuak zabaltzen, kontsignak eta informazioa barreiatzen, kolore debekatuak margotzen. Egoera hori adierazteko “barne erbestea”ren kontzeptua erabili izan da.

Kontzeptu literarioki eder horren azpian kontraesan galanta ezkutatu da. Erbestea kanpora joatea baldin bada, nola aplikatu diezaiekegu mugak gaintu ez dituen pertsoneri? Baina kontzeptuaren tranpa hurrutiago doa. Joko literario horrekin errealitate gordina ezkututzen ari da: errepresio bortitzarena, hizkuntza debekatuarena, urtetan emandako giza eskubideen eguneroko urraketa. Politika da “barne erbestea”, batez ere “errepresio” kontzeptu odoleztuarekin parekatzen badugu. Baina gure betebeharra zein da, errealitatea apaintzea edo gertatu izandako gertaerak iritzi publiko eta espezializatuaren aurrean jartzea? Beraz, “barne erbestea” literaturarako utzi nahi dugu eta, aldi berean, hitz tekniko bezala baztertu. Egokiagoak dira klandestinitatea, oposizioa, errepresioa.

Beste asko izan ziren jardunaldi horietan planteatutako ideiak. Testuinguru horretan akaso gerra aurreko erbestaldien ikerketa helburu moduan plazaratzea nahiko nobedade izan daiteke. Eta aipatutako izenek ekimena erabat justifikatzen dute: Sebastian de Amorrortu, Juan Goyanarte, Tomas Meabe, Miguel de Unamuno, Eli Gallastegi... Gure herriaren erbestaldiek ez ziren 1936an hasi eta, are gehiago, gerra aurreko erbestaldiek eta ondorengoek lotura estua izan dute askotan. Ikerketarako ate berriak, zalantzarik gabe.

Gure herriak gogoratu nahi du, historia ofizialari, garaileek inposatutako historiari, buelta eman nahi dio. Bide horretan ikertzaileek bere aportazioa egin behar dute eta horretan datza aipatutako azkeneko batzar horren beste erabakia: 2008an Birmingham-go Unibertsitatean nazioarteko bilkura berri bat burutuko da, oraingoan errepublikazaleen erbestaldien geografiak aztertzeko. Oroimena makilatu eta faltsifikatu nahi dutenek jai daukate.